

TXABOLZALETASUNAREKIN AMAITZEKO PROGRAMAK. DEBAKO ESPERIENTZIA

1991 urtean Debako Udala, Gipuzkoako beste batzuek bezelaxe, txabolzaletasun eta bazterkeria arazo bati aurre egin beharrean aurkitu zen. Foru Aldundiak gutxiengo etnikoei buruz deituriko lan mahian prestatu zen Programa Orokorra bereganatu zuen Udal bakarra izan zen une hartan, eta beraz esperientzia hau programa piloto gisa eratu zen.

Gutxiengo etnikoak gizarterartzeko programak bost urte iraun du Deban: 1991ko martxoan hasi zen eta 1996ko uztailean amaitu da Programa berezi gisa. Programa barruan egin dena zehaztu baino lehenago, zergatik eta zertarako sortu zen azaldu behar dugu.

1. TALDEAREN EZAUGARRIAK

Garai hartan Saturrarango Harrobian Portugaleko Trasmontano talde bat bizi zen: 44 pertsona ziren guztira, edo 8 familia beste era batera esanda. Oso talde gaztea zen, batzbesteko adina 18/19 urtekoa bait zen.

Trasmontanoak Portugaleko ifarraldeko Tras-Os-Montes lurraldean dute jatorria. Lurralde honetako etorkin asko dabil munduan, eta geihenak Espainiako ifarraldean kokatu dira, txabola guneak osatuz eta lan baztertuetan ihardunez.

Taldea oso baldintza berezietan bizi zen harrobian:

- Txaboletan pilatuta, argi, ur eta komunik gabe.

- Ume guztiak (13 ume) eskolatu gabe
- Heldu gehienak (%75) analfabetoak ziren
- Inork ez zuen prestakuntza profesionalik eta lan marginaletan aritzen ziren (algak, txatarra, etab,)
- Zortzi familietatik zazpi IMI eta AES laguntzak jasotzen zituzten. Eskean ibiltzen ziren sarritan.

1991. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza eskaini zien horrelako arazoa zuten Udaleri interbideak aurkitzeko. Debako Udalaren ekimenak eta adoreak egin zuen posible asmo hori gauzatzea.

2. PROGRAMAREN EGITURAKETA

Zergatik jaio zen laburki azaldu ondoren, zer lortu nahi zen aipatuko dugu: pobrezia eta bazterketa egoeratik ateratzeko eta gainerako biztanleekiko aukera berdintasuna lortzeko. Horiek ziren helburu nagusiak.

Hartu ziren neurri garrantzitsuenak hauek izan ziren:

- Bederatzi etxebizitza prefabrikatu ezarri ziren harrobiaren jabearekin akordio batera heldu eta gero. Etxeekin batera beharrezkoa zen azpiegitura eraiki zen: ur hornidura bideratu, argindarra jarri, lurra asfaltatu, prefabrikatuak jartzeko oinarriak prestatu, sarbidea egokitu, saneamendu eta fosa septikoa egin.

- Txabola guztiak bota ziren.
- Bost urteko lana aurrera eramateko teknikari bat kontratatu zen.
- Programa garatzeko araudi bat erabaki zen eta familia guztiek idatzitako akordioa sinatu zuten programan partehartzeko eta zenbait baldintza betetzeko borondatea adieraziz.
- Ume guztiak Ikastola eta Ostolaza ikastetxeetan eskolaratu ziren.
- Komunitateko gazte eta heldueri oinarriko lan prestakuntza eskaini zitzaion.
- Familia hauek bere antolamendu eta egituraketan jasaten dituzten arazoak gainditzeko lan egin da.
- Pertsonen dokumentazioan zeuden problemak eta irregulartasunak zuzentzeko jessioak burutu dira.

3. ANTOLAKETA ETA ERAKUNDEEN PARTEHARTZEA

Programaren ardura nagusia Debako Udalaren Gizarte Zerbitzuak eraman dute, beste bi erakundeekin laguntzarekin: Foru Aldundia eta Caritasen Ijitoen Idazkaritza, alegia. Hiruren elkarlana lankidetzaz hitzarmen bidez eta Kudeaketa Batzordean beraien partaidetzaz bidez gauzatu da. Batzorde hau hiru hilabeteko bildu da eta bertan hartu dira Programaren garapenak eskatu izan dituen erabaki nagusiak.

Bestalde, Programa bost urtetarako aurreikusi zen, eta urtero programazio berri bati ekin zaio, honen martxa hiru hilabeteko ebaluatu delarik. Lehen hiru urteetan programazio hau ekintza arloen arabera antolatu zen (etxebizitza, hezkuntza, lana, etab.), eta azken bietan aldiz, familia bakoitzaren egoeraren inguruan antolatu da.

4. AURRERA ERAMANDAKO ZENBAIT EKIIMTZA

a) *Eskola jarraipenerako proiektua*

Honen bidez, haur guztiak eskolatu dira, eta 16 urtetik gorakoak Helduen Hezkuntzara bideratu dira. Emaizak oso onak izan dira, lan asko kostata lortu badira ere.

b) *Etxebizitza*

Lehen fase batean, familiak prefabrikatuetan bizitzera pasa ziren. Gerora berri, banaka banaka, bakoitzaren garapen mailaren eta baliabideen eskuragarritasunaren arabera, beste udaletan kokatutako

etxebizitza normalizatuera pasa dira (Azpeitia, Amorebieta, Eibar, etab.), batzuek errentan eta besteak jabe gisa. Esanenezake Programaren helburu hau erabat bete dela.

d) *Lanbidea*

Arlo honetan, gazteak formazio bidean ipini nahi izan dira, eta helduak berriaz lan munduan sartzea. Aldi berean, taldearen iharduera tradizionalak (algak jasotzea, periak) sendotzen saiatu da Programa.

Gazteen emaitzak kaskarrak izan dira: Gizarte Bermako Moduloetan sartutako gazte gehienak ez dira hauek osatzeko gai izan. Esperientzia baikorrenak sukaldaritza eta igeltzaritza kurtsoekin eman da. Iharduera tradizionalen sendotzeari dagokionean, bi ikerketa burutu ziren algen bilketa eta perien errentagarritasun ekonomikoa aztertzeke, eta prestakuntza kurso bat ere antolatu zen perien arloan. Emaizak ez dira onak izan arlo honetan, aldiko lan kontratu bat besterik ez bait da lortu bost urteetan.

e) *Familia antolaketa*

Hiru Proiektu desberdinek osatu dute arlo honetan egindako lana: emakumeen oinarriko prestakuntzarako kursoa, familiar eta bikotean partehartzeko proiektua eta familien jarraipena. Emaizak onak izan dira, baino arlo honetan aldaketak berez oso makalak dira eta familia batetik bestera alde handiak egon dira.

f) *Komunitate antolaketa*

Talde honen ezaugarriak kontuan izanik (indibidualismoa, klanen arteko ezinikusiak, elkartasun eza, etab.) eta elkarbizitzarako beharrezkoak diren zenbait lan banatu ahal izateke (garbiketak, espazioaren antolaketa, etab.), asanblada bat bultzatu beharra zegoen, arazoak biolentziarik gabe konponduko baziren. Arlo honetan emaitzak lortu dira, poliki-poliki, eta zenbait familien arteko arazoak ezin izan dira gainditu.

g) *Bestelako ekintzak*

Dokumentazio arazoak konpontzera zuzendu dira gehienbat (pasaporteak, NAN, Osakidetzako txartela, gidatzeko baimena, zergak, etab.). Arlo honetan helburuak erabat bete dira.

5. ERABILITAKO BALIABIDEAK

Bost urtetako epean eta arlo guztietan egin diren gastu guztiak kontuan hartuz gero, kostu osoa 73 milioi pezeta ingurukoa izan da. Debako Udalak%29 ordaindu

du eta beste %71 Foru Aldundiko GIZARTEKINTZA Departamenduak.

Dirutza hau bi arlotara zuzendu da: alde batetik baliabide materiala (etxebizitza prefabrikatuak, azpiegitura lanak, hornidura etab.) eta bestetik baliabide teknikoaren ordaintzara (arduradun teknikoaren lantzeria eta hitzartutako zenbait erakundeekin proiektu zehatzak aurrera eramateko aurrekontua). Azkenik, erakunde desberdinetako teknikoaren lana eta denbora ere baliabidetzat hartu behar genuke, koste hau kalkulatzeko zaila bada ere.

6. EMAITZAK

Lorpen handienak hezkuntza eta etxebizitza arloetan izan ditugu. Ume guztiak eskolaratzeaz gain euren parte hartzea, integrazio maila eta eskola emaitzak oso positiboak izan dira.

Etxebizitzari buruz ere, dudarik gabe, oso emaitza baikorrak lortu dira, programako helburu nagusienetako bat zeharo bete delako; hau da, txabolzaletasuna erabat desagertu da etxebizitza duin eta normalizatu bat lortzeko bideak ziurtatuz.

Dena dela, arlo guztiak ez dira hain positiboak izan. Porrot batzuk ere sufritu ditugu, beharbada nabarmenenak lan normalizatuak topatzeko orduan eman direlarik.

7. PROGRAMAREIM IRAKASPEIMAK

- a) Familiekin eta pertsonekin zuzeneko lanari behar aina denbora ernatearen garrantzia. Honelako programa globaletan, pertsona, familia eta talde mailan lan egin behar denean, behar-beharrezkoa da hauek ezagutzea, neurri batean bada ere:

- pertsona bakoitzaren izaera
- famili barneko eta famili arteko harreman pautak
- talde etnikoaren jokabidea eragin dezaketen pautak kulturalak

- b) Gutxiengo etnikoaren gizartratze programa batean jorratzen den arlo nagusienetakoa etxebizitza da. Hemen aukera desberdinak daude: zubi-etxebizitza batera pasa bitarteko urrats gisa, edo zuzenean etxebizitza arruntera mugitu, erritmo eta fase desberdinekin. Oinarrikoa da, honelako edozein programa di-

seinatu aurretik, familia txabolazale bakoitzaren ezaugarrien azterketa zehaz-mehatza egitea, baliabideak beharretara ondo egokitzeko.

- d) Programan parte hartuko duten teknikeri desberdinen egin beharrak ondo bereiztea komeni da, bai hauen artean, eraginkortasuna bermatzeko, eta batez ere lantzen ari garen taldearen aurrean, norik zein ardura eta zein helburu dituen jakin dezaten.
- e) Erakundearen erritmoak eta familien erritmoak desberdintzearen garrantzia. Era honetako programen emaitzak ikusteko denbora asko behar da familien arazo guztien pilaketa kontuan izanda. Programa pilotoetan erakundeek esijentzia maila handiak izaten dituzte, emaitzak berehala ikusi nahi izaten dira, eta askotan familia guztiak berdina erantzutea eta garapen erritmo berdina eramatea espero izan ohi da.
- Horregatik komeni da programazioan famili bakoitza hartzea interbentzio gunez, eta familiko partaide bakoitzarekin argitzea programazio hori, bere asmoak eta gogoak kontuan izanik. Era honetan, helburuak zehatzagoak dira, epe motzagoan lortu daitezke eta familiek beraien garapenaren ardura eta konzientzia handiagoa dute.
- f) Programa honetan ez zen lortu beharrezkoa den talde multidisziplinarririk sortzea, erabateko ekintza programak baten eskatzen duen legez.
- g) Programaren helburuetako bat «gizarteko gehiengoak talde hauekiko dituzten jarrerak aldatzea» zela gogoratuz, esan behar da ez dela nahiko lan egin arlo honetan. Programaren kokapen fisikoa (Debatik 9 Kmra.) oztopo handia izan da zentzu honetan.
- h) Emaitzeri buruz, azpimarratu behar dugu etxebizitza eta inguru normalizatuera emandako pausua oso garrantzitsua bada ere, lan munduaren normalizazioa ez dela oraindik lortu eta horrek bakarrik ekarriko diola talde honi erakundeekiko independentzia. Bide horretan, orain familiak dauden udaierrietatik arlo hori lantzen jarraitu beharra dago.
- i) Azkenik, argi eta garbi aitortu behar diegu familieri bere aldetik egin duten aldatetarako ahalegina, eta honek programaren arrakastan izan duen garrantzia.

JON IRIBAR M.^a
EUGENIA MIRANDA